

BABESTU

zure begiak



EGUZKITAKO BETAURREKO

egokiekin



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

PERTSONA
HELBURU



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Eguzkitako betaurrekoak begiak babesteko tresna optikoak dira. Eguzki erradiazio kaltegarrietatik **babesten** gaituzte, baita haize eta hautsa bezalako deserotasunetatik ere, koloreetan eta irudiaren kontrastean eraginik izan gabe.


Eguzkitako betaurrekoak bete behar dituzten **BALDINTZAK**:


- 🕶️ **CE europar** berme ziurtagiriaren seinalea (produktuak kalitate-kontrola pasatu duela adierazten du).
- 🕶️ **Argiaren intentsitatea eta argitasuna murriztea.** Lenteen iragazki-maila agertu behar da, 0tik 4ra.
- 🕶️ Zimurrik, punta irtenik... eza. **Egiturazko egonkortasuna** izan behar du, baldintza gogorrei eta sukoitasunari aurre egiteko.
- 🕶️ **Neutralitate optikoa**, hau dar, graduaziorik eza.
- 🕶️ Gutxienez, bi urteko **bermea**.
- 🕶️ **Informazio-liburuxka** eta fabrikatzailearen etiketa, saltzen den estatuaren hizkuntza ofizialetan. Gutxienez, ondokoa aipatu behar du:
 - 🍍 **Nork egin dituen** eta Europako Batasunean **nork banatu dituen**.
 - 🍍 Nola eta noiz **erabili** behar diren.
 - 🍍 Erradiazio ultramoreen eta argiaren kontrako **babes maila** zein den.
 - 🍍 Erabilerari buruzko arrisku eta mugen **abisua**.
 - 🍍 Garbitzeko eta zaintzeko **arauak**.


Araudia betetzen ez duten eguzkitako betaurrekoak erabiltzea, honako **ARRISKUAK** sor ditzakete:



 Iraunkortasun urria.

 **Begi gaixotasunak**, besteak beste, konjuntibitisa. Horrek eragiten ditu fotofobia, begiaren negar jarioa eta gorritasuna.

 Ultramoreen kontrako iragazkirik ezak **kataratak** agertarazi ditzake epe luzera.

 Lentearen kalitate txarrak **zorabioak, ikusmen bikoitza, buruko mina** eta beste sintoma batzuk eragiten ditu.










Eguzkitako betaurrekoak aukeratu honako hau kontuan hartuta:

Iragazki-maila	Lente mota	Erabilera	Murrizketa
0	Oso argia	Barrukoak edo zerua estalia	Inolakoa
1	Arinki koloreztatua	Eguzki-argitasun txikia (hiria)	Ez dute gaez
2	Erdizka koloreztatua	Eguzki-argitasun ertaina (txirrindularitza)	gidatzeko
3	Iluna	Eguzki-argitasun handia (hondartza, mendia)	balio
4	Oso iluna	Sekulako argitasuna (eskia, goi-mendia)	Gidatzeko ez erabili

Eguzkitako betaurrekoak erosi baino lehen, kontuan izan hurrengo GOMENDIOAK:



-  Lente ilunak **ez du** babes handiagoa **bermatzen**.
-  Nork bere sentiberatasuna dauka argiarekin. Zure beharretara egokitutako eguzkitako betaurrekoak erabil itzazu.
-  Kontuan izan **non erabiliko dituzun** eguzkitako betaurrekoak (hiria, mendia, gidatzea...), eta horren arabera aukera itzazu.
-  Eguzkitako betaurreko guztiek gidatzeko balio dute, 4.mailako iragazkia dutenak izan ezik.
-  Ez erabili eguzkitako betaurrekorik gaez gidatzeko.
-  Kolore horia duten lenteek ez dute eguzki erradiazioak iragazten; ikusmena hobetzen dute, ordea, argi gutxiko egoeratan.
-  Eska ezazu izpi ultramoreen kontrako **erabateko babesa**.

